

Gros-Ulia

Uliako plan berezia bultzatu nahi da

Aitziber Gurutzeaga (Ifnoa.: 272884)

Uliako zenbait elkartek plan berezia aurrera joateko bideak ezartzea eskatu dute. 1995eko azaroaren 16ko udal plenoan onartu zen Uliako parke izendatzea Hiri Ordenamendurako Plan Orokorrean: «Udalak gunea babestu beharko luke kutsakorrek diren gauzak kenduz...». Elkarte hauek adierazi dutenez, Udalak 1999ko azarorako plan berezia onartu behar du eta oraindik ez du talde teknikoa ere izendatu. Uliako elkarteekin bat egin dute eskaera hau egite-rakoan Bidebietako beste hainbat elkartek.



Salaketa Udalari

Udalak kendutako graffitien aurkako salaketa jarri du Uliako auzo elkarteak. Elkarte honek apirilean antolatu zuen graffiti lehiaketa eta maiatza bitartean egin zituzten graffiti-arten hiru izan ziren irabazle. Hauek Uliako auzo elkartearen kanpoko horman margotu ondoren udaleko langileek kendu zituzten.

Xake txapelketa

Open Gros Xake Txapelketa aste honetan hasi da. Irailaren 26ra arte iraunduko duen txapelketan irabazleak 60.000 pezeta jasoko ditu eta txapeldunordeak 40.000 pezeta.

Herrera

Larraitx Garmendia (Ifnoa.: 391267)

Auzotegia martxan

Herrerako auzotegiko arduradun berria Laura Diaz de Prado gaztea izango da. Aurten auzotegiaren koordinaketa gazte bati ematea komeni dela uste izan dute arduradunek, Herri-Pe auzo


elkartekoek, eta konfindantza jarri dute Laurarengan. Bestalde, Herrerako auzotegiak ireki du jada ikastaro desberdinetan parte hartzeko izena emateko epea.

Horrezaz gain, auzotegiak eskaintzen dituen ekin-tzak martxan jarri dira, besteak beste, liburutegia, bilera

gelak, musika taldeei zuzendutako gela, erakusketa gelak edota hitzaldi gelak.

Futbola


Aurtengo denboraldian San Luis-La Salle Ikastetxe-ko futbol taldean jokatu nahi duten gazteak bertara azaldu daitezke.



Bakailao tortila
Bakailao frijitua
Txuleta


Zapiain, Oiarbide
eta Gurutzetako
sagardoak

Enbeltran kalea 5
Tfnoa.: 42 04 21



SOINU ALAI

AKORDEOI ESKOLA
SOLFEOA



Esku soinua, panderoa edo trikitixa ondo ikasteko hemen duzu zure aukera.

Madril hiribidea 24
Tfnoa.: 47.00.01